



ARRAZTALO

2022ko memoria

2023ko urtarrilaren 12a



AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
2	2022 URTEKO EKINTZEN AZALPENA	4
2.1	LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN	4
2.1.1	HELURU OROKORRAK	4
2.1.2	2022KO IBILBIDEA	4
2.1.3	2023KO HELBURUAK	6
2.2	ENPLEGU ZENTRO BEREZIA (EZB)	7
2.2.1	HELURU OROKORRAK	7
2.2.2	2022RAKO HELBURUAK	7
2.2.3	2022KO IBILBIDEA	8
2.2.4	2023KO HELBURUAK	8
2.3	NEKAZAL USTIATEGIA ETA SASOIKO BARAZKIEN SALMENTA	9
2.3.1	HELURU OROKORRAK	9
2.3.2	2022KO HELBURUAK	9
2.3.3	2022KO IBILBIDEA	9
2.3.4	2023KO HELBURUAK	12
2.4	IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK	13
2.4.1	HELURU OROKORRAK	13
2.4.2	2022RAKO HELBURUAK	13
2.4.3	2022KO IBILBIDEA	13
2.5	ALDURAREKIN ELKARLANA	13
2.5.1	HELURU OROKORRAK	13
2.5.2	2022KO IBILBIDEA	13

3	DIRULAGUNTZAK	14
4	DIRU-KONTUAK	16
4.1	BALANTZEA	16
4.2	GASTUEN ORDAINAGIRIEN ZERRENDA	18
4.2.1	GIZA BALIABIDEAK (SOLDATAK, GIZARTE SEGURANTZA ETA JOAN-ETORRIAK)	18
4.2.2	KANPOKO ZERBITZUAK (ASEGURUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK)	20
4.2.3	HORNIDURAK (LOKALEN GASTUAK ETA BARATZA MATERIALA)	21
4.2.4	FINANTZA GASTUAK	24
4.2.5	BESTE GASTUAK	24
4.2.6	INBERTSIOAK	25



1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2022an egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta orain arteko emaitzak zehazten dira. Gainera, dirukontuen azalpen zehatza ematen da.

2 2022 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak mantentzea eta sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2.1.2 2022ko ibilbidea

Lantalde egonkorra

Lantalde egonkorrean gaur egun buruko gaixotasuna duten lau pertsona ari dira lanean. Horietatik hiruk urte askotako esperientzia dute Arraztalon eta laugarrenak bi urte egingo ditu.

Lan dinamika egokia da, baina aurreko txostenetan aipatu den moduan, gizarte hezkuntza ikuspegitik langileen integrazioan lagunduko duen pertsona baten beharra dago. Enplegu Zentro Bereziak hori ahalbidetuko du eta eskaera egin bitartean, praktiketako ikasle bat hartzeko aukera sortu zaigu, Leitzaran Institutuaren bitartez. 2022-2023 ikasturtearen lehen seihilekoan ez da gure eskaintzan parte hartuko duen ikaslerik azaldu, bigarren seihilekoan deialdia zabalduko da.

Lanbideren Enplegu Plana

2022 urteko lehenengo sei hilabetetan, Lanbideren 2021 urteko Enplegu Planeko langileak izan ziren lanean Arraztaloren ustiatégian. Lantalde finkoarekin batera aritu ziren lanean 4 kontratazio berriak.

Pertsona hauen hautaketan, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroak lidergoa hartu zuen, senideekin eta erabiltzaileekin elkarrizketak eginez eta hautagaiak proposatuz. Guztira, bost pertsona kontratatu dira, 25 eta 50 urte arteko hiru gizonezko eta emakumezko bat, hain zuzen ere. Bi Errenteriakoak, bi Pasaiakoak eta bat Oiartzungoa.

Langileen kontratazioa 2021eko abenduan gauzatu zen eta 2022ko urtarrilean zehar formazio jardueretan parte hartu zuten. Horretarako, Arraztalo Elkarteko baratzatan lanean hasi ziren, dagoeneko martxan zegoen lantalde batean integraturik. Lantaldearen arduradunak, pertsona bakoitzaren profila aztertu eta beharrezko formakuntza eta egokitzapen ekintzak gauzatu zituen, langileen egokitzapena ziurtatzeko. Besteak beste, nekazaritza tresnerian formakuntza, baratza lanen kudeaketan formakuntza eta lan arriskuen prebentzioan formakuntza jaso zituzten. Formazio fase honetan, langile bakoitzaren esperientzia eta gaitasunak aztertu dira, ustiapenean dauden ataza ezberdinetatik bakoitzari hobekien egokitzen zitzaizkionak aukeratzeko. Hasieratik ikusi ahal izan zen, gaixotasun mentalak eragindako ondorioez gain, zailtasun fisikoak ere bazituztela langileek. Hori dela eta, baratzetako lana egokitu behar izan da.

2022ko otsailetik 2022ko ekainera, kontratatu berriak Arraztaloko lantaldean integraturik egon dira, nekazaritza lanetan, lanaldi arrunteko fasean. Hilabete hauetan, langileekin eta senideekin egoeraren jarraipena egin da, beharrezkoa izan den kasuetan lan jarduerak egokituz, bai lan motari dagokionean, lantaldeari dagokionean edo ordutegiei dagokionean. Oiartzungo langilearen kasuan, Udaleko gizarte zerbitzuekin jarraipen bilerak egin dira bere egoera gertutik jarraitzeko.

Dena den, aipatu behar da aurtengo programa nahiko gorabeheratsua izan dela partaideen osasun arazoak direla eta:

- Langile baten kasuan, martxoa bukaeran programa uztea erabaki zuen, senideekin adostuta. Denbora luzez bajaran egon ondoren eta lanpostura ez zela egokitu ikusirik, kontratua etetea erabaki zuen. Kasu honetan, batik bat buru osasun arazoek eragindako zailtasunak izan dira lana uzteko arrazoi nagusia. Arraztalon kontziente gara horrelako egoerak kudeatu beharko ditugula. Nahiz eta aukeraketa prozesuan hautagaiak lanerako prest daudela ziurtatzen saiatu, ondoren lan ingurunean duten bilakaera beti da gora-beheratsua eta orduan ikusten da oraindik ez daudela prest lan esparrura jauzi egiteko.
- Aurretik aipatutako langilearen ordez, beste langile bat kontratatu zen apirila hasieran. Hasi eta bigarren egunean lantokian krisi epileptiko bat izan zuen. Senideek

esandakoaren arabera, aurretik antzeko arazoak izan omen zituen baina sekula sendagile batek artatu gabe egon da. Hilabetez ospitaleratuta egon ondoren, alta maiatza erdialdean eman zioten eta lanera bueltatu zen.

Programa ekainean bukatu zen eta txosten hau idazteko momentuan oraindik ez da baloraziorik egin bertan parte hartu duten erakundeekin.

Era berean, 2022 urtearen amaieran 2022ko Enplegu Planeko langileen kontratazioa egin da. 4 lanpostu eskaini ziren eta 9 hautagaik eman zuten izena. Bakoitzaren profilak aztertuta azkenean 3 langile bakarrik kontratatu ahal izan ziren. Baldintzak betetzen ez zituztelako edo momentu horretan lanean zeudelako, azken lanpostua hutsik geratu zen.

Azken urtetan prozesu berbera jarraitu den arren, honek hobekuntzak behar dituela argi dago:

- Enplegu plana 2022koa izan arren, dirulaguntzen deialdia ateratzen denetik ebatzen den arte, sei hilabete baino gehiago pasatzen dira. Ondorioz, hautagaiak bilatzeko urte bukaerako 3 hilabete eskas geratzen dira eta kontratazioak urteko azken egunetan gauzatzen dira.
- Kontratazioak ez dira xamurrak, bost erakunderen artean koordinatu behar baitugu: Oiartzungo Udaleko gizarte zerbitzuak, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroa, Errenteriako Udala, Oarsoaldea Garapen Agentzia eta Arraztalo. Pertsona hauen kontratazioa denontzat interesgarria den arren, behin dirulaguntzak onartuta prozesuaren lidergoa hartuko duen inor ez dago eta Arraztalok egin behar izaten ditu koordinazio lanak. Onura nagusia Arraztalorentzat izan arren, administrazioaren lan programa bat den heinean, guztion inplikazioa hobetu behar dela argi geratu da.
- Kontratatzaren diren pertsonen profilak zaildu egiten du prozesua. Batetik, lan eskaintzak komunikatzeko bideak hobetu behar ditugu. Arraztalok sare sozialen eta webgunearen bidez lan poltsa irekitzen du. 2022an 8 pertsonak eman zuten izena eta horietako batzuk enplegu planean parte hartu dute. Osasun Mentaleko Zentroan ere kartelak jartzen ditugu. Dena den, hautagai gehienak Oiartzundik kanpokoak dira. Herrian bertan lan aukerak komunikatzeko bide berriak bilatu behar ditugu.

2.1.3 2023ko helburuak

- Lantalde orokorrari dagokionean:

- 2023ko erronka nagusia erretiroa hartuko duen langile baten erreleboa kudeatzea izango da. 2022ko abendutik aurrera erretiroa hartzeko aukera du. Elkartek, langilearekin eta senideekin lanketa abiatu beharko du.
- Bestetik, gizarte hezkuntza arloko langile baten kontratazioa lortzeko aukerak jorratzen jarraituko da. Pertsona honen kontratazioa ezinbestekoa dela argi dago, lantalde egonkorreko langileen lan dinamikak hobetu eta etorkizuneko ibilbidea diseinatzen hasteko.
- Enplegu Planeko langileen kasuan, honako faseak jarraituko dira programak irauten dituen 6 hilabetetan:
 - Lantaldearen arduradunak, pertsona bakoitzaren profila aztertu eta beharrezko formakuntza ekintzak gauzatu dituzte, langileen egokitzapena ziurtatzeko. Besteak beste, nekazaritza tresnerian formakuntza, baratza lanen kudeaketan formakuntza eta lan arriskuen prebentzioan formakuntza jaso zituzten. Formazio fase honetan, langile bakoitzaren esperientzia eta gaitasunak aztertuko dira, ustiapenean dauden ataza ezberdinetatik bakoitzari hobekien egokitzen zitzaizkionak aukeratzeko.
 - Otsailetik ekainera, kontratatu berriak Arraztaloko lantaldean integraturik egongo dira, nekazaritza lanetan, lanaldi arrunteko fasean.

Hilabete hauetan, langileekin eta senideekin egoeraren jarraipena egin da, beharrezkoa izan den kasuetan lan jarduerak egokituz, bai lan motari dagokionean, lantaldeari dagokionean edo ordutegiei dagokionean.

Azkenik, 2023rako helburu orokorra izango da, aurreko urtetan bezala, erakundeekin koordinazioa hobetzea.

2.2 Enplegu Zentro Berezia (EZB)

2.2.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzeko.

2.2.2 2022rako helburuak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.



- Inguruko erakundeekin Enplegu Zentro Berezia lortzeko proposamena lantzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa zein izango den erabakitzea
- Plan ekonomiko finantzieroa egitea.
- Enplegu Zentro Berezia martxan jartzea.

2.2.3 2022ko ibilbidea

2022ko lehen erdian Enplegu Zentro Berezia martxan jartzeko tramite hauek egin dira:

- Jarduera Baimenaren tramitazioa: Oiartzungo Udaleko Hirigintza sailarekin bilera ezberdinak egin dira Jarduera Baimena lortzeko eskatzen diren baldintzak nola bete zehazteko. Arraztalotik Abelur aholkularitza enpresa kontratatu genuen eta beraiekin lanean ari gara baimena lortzeko. Udal eraikina izanik zailtasun ezberdinak sortu dira, ez baitago argi nork egin behar dituen baimena lortzeko beharrezko egokitzapenak ezta zein den bete beharreko arautegia. **2022 urtearen bukaeran Jarduera Baimenaren zain gaude Enplegu Zentro Bereziaren tramitazioarekin aurrera jarraitzeko.**
- **Plan ekonomiko finantzieroa bukatu da.**
- Udalarekin Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoaren inguruko bilerak egin dira. Gaur egungo egoera azaldu zaie eta 2022an zentroa erregistratzeko beharra adierazi da. Fundazioaren proposamena eraman da baina udaletik ez da argi ikusten Fundazio baten beharra dagoenik ezta lortu nahi diren helburuak lortzeko fundazio hori beharrezkoa denik. **Behin Jarduera Baimena lortuta, forma juridikoaren inguruko erabakia hartu beharko da.**

2.2.4 2023ko helburuak

2023 helburu nagusia Enplegu Zentro Bereziaren erregistro tramitea egitea da. 10 urte daramatzagu desgaitasuna duten pertsonekin lanean, hauen kontratazioagatik inolako onurarik jaso gabe. Berez Lanbide (eskumena duen administrazioa) kenduta, beste guztiek laguntzen digute. Ondorioz, ezinbestekoa da ahalik eta azkarren Enplegu Zentro Bereziaren onurak lortzen hastea.



2.3 Nekazal ustiatagia eta sasoiko barazkien salmenta

2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoian-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konpromezua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2.3.2 2022ko helburuak

2022rako honako helburuak zehaztu dira:

- Kontsumo taldea sendotzen jarraitzea. Komunikazio kanpainak egiten jarraitu, kide berriak erakartzeko.
- Labore denda eta Ikastolako sukaldea hornitzeko barazkien ekoizpena ugaritzea.
- Inguruko denda txikiak hornitzen jarraitzea. Orain arte modu puntualean egiten da. Aurrera begira denda txikiak iraunkortasunez hornitzea izango litzateke helburua.
- Bezero berriak lortzea.

2.3.3 2022ko ibilbidea

Baratzak

2022an Arraztalok lau baratza (19000 m²) eta bi sagasti (12000 m²) kudeatzen jarraitzen du. Gaur egun daukagun azpiegitura nahiko egonkortuta dagoela esan daiteke. Baratza guztiek dute beharrezko materiala eta urtero mantenu minimoa egiten joan gara. Inguruko erakundeen laguntzaz motoaitzur bat erosteko inbertsioa egin da.



2022an Carrefour gainean dagoen agroaldeako sagastiaren zesioa etetea eskatu zaio udalari. Urteak dira inguruko baserritar batekin liskarrak ditugula eremuaren mugak ez dituelako errespetatzen. Sagasti bat izanik, ez gara bertatik astero pasa izan eta pasa izan garenean, arazo ezberdinekin topo egin dugu. Ondorioz, udalari zesioa eten eta beste lursail bat uzteko eskatu zaio. 2022 bukaeran Ingurumen Saitetik eskaera onartu zen eta hitzarmenean sartzeke dago.

Kontsumo taldea

Kontsumo taldeari dagokionean, 2022a 27 kiderekin hasi genuen eta 26 kiderekin bukatu dugu. Tartean bajak eta altak izan dira. Arraztaloren helburua 30 bat kideko kontsumo taldea izatea da. Helburu hori lortzeko 22-23 ikasturte hasierarekin batera, publizitate kanpaina ezberdinak martxan jarri dira:

- Etxez etxe eta enpresetan esku-orrien banaketa egin da. Guztira 2000 eskuorri.



ARRAZTALO KONTSUMO TALDEA

Etz gainera, enpresetara zerbitzu berria!
3 pertsonako taldea osatuz gero, barazki saskia lantegira eramango dizugu.

Oiartzungo sasoian sasoiko barazki ekologikoak

Asteroko saskia hilean 50€

Gaixotasun mentala duten pertsonen laguntzen ari zara

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Grupo de consumo ARRAZTALO
¡HAZTE SOCIO!
Cesta semanal de verduras ecológicas por 50€ al mes

arraztalo@gmail.com 617585724


- Email bidezko kanpainak.
- Ikastetxeen bidezko kanpainak. Haurtzaro Ikastolan, Elizalde Herri Eskolan eta Urmendin oharrak banatzeko eskatu da.
- Iragarkiak prentsan. Oarsoaldeako Hitzan bi kanpaina egin dira online iragarkiak jartzeko.



Merkataritza eta beste bezeroak

Arraztaloren bezero nagusiak kontsumo taldeko kideak diren arren, azkeneko urtetan merkataritza txikian eta herriko ikastetxeen jantokietan hornitzaile izateko ahalegina egin da. 2022an bezerorik garrantzitsuenak Haurtzaro Ikastolako jantokia eta Labore izaten jarraitzen dute. Azken honekin lanketa berezia egiten ari gara, uztak egokituz eta beraiengandik gertuago egonez. Gainera, HemenGuk ekimenaren baitan antolatu diren azokatan parte hartzen jarraitzen dugu eta gure produktuak zein kontsumo taldea bistaratzeko aukera izaten ari da. Dena den, Kontsumo Taldeaz aparteko salmentak % 20 jaitsi dira aurreko urtearekin alderatuz. 2021 urte oso ona izan zen, oraindik pandemiaren dinamikak jarraitzen zuelako. Grafikoak erakusten duen moduan, Kontsumo Taldeko diru sarreraren jaitsiera merkataritzako salmentekin orekatu da.

Kontsumo taldea eta Merkataritza sarrerak



Gainera, 2022an zehar Eroskiren online denda ([‘Eroski Azoka’](#)) parte hartzen hasi gara. Egitasmoa hau nahiko berria da eta oraindik ez dugu lortu salmenta esanguratsurik edukitzea. Maiatzetik abendura 13 saski saldu dira plataforma honen bitartez. Hala ere, argi dugu online denda honen atzean azpiegitura indartsua duela Eroskik eta bezero ugari daudela hor. Berez iritsiko ez ginatekeen lekuetara iristea ahalbideratzen digu. Beraz bide hau lantzen jarraitu behar dugu.

Azkenik aipatu behar da, salmenta bide berrien bila jarraitzen dugula. Besteak beste:

- Eskualdeko merkatariei bisitak egiten jarraitzen dugu, gure produktuak eskainiz.
- Irunen kontsumo talde bat sortzeko aukerak aztertzen ari gara.
- Astero postua Errenteriako merkatuan jartzea aztertzen ari gara.

2.3.4 2023ko helburuak

2023ko helburuan honakoak dira:

- Kontsumo taldea 30 kidedan egonkortzea. Horretarako, bazkidetza kanpainarekin jarraituko dugu.
- Merkataritzako salmentak % 20 igotzea, 2021eko mailara itzultzeko. Pandemiak zerbait erakutsi badigu, bertan bezeroak badaudela da.



2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2.4.2 2022rako helburuak

2022rako helburuak honakoak dira:

- Haurtzaro Ikastolak martxan jarri nahi duen proiektuan laguntzea.
- Elizaldeko eta Haurtzaroko ikasleak baratzetara joaten direnerako, irakasleekin bisitak landu Arraztalo elkarteak burutzen duen lana azalduz. Horretarako irakasleei Arraztaloko langileek egiten duten lana azaldu behar zaie. Langilearen egunerokotasuna, langilearen prozesua, dituzten zailtasunak, izaten dituzten aurrerapenak eta abar.

2.4.3 2022ko ibilbidea

2022ko lehen seihilekoan, Arraztaloren baratzatan Haurtzaro Ikastolako HHko ikasleen bisita izan da. Beste urtetan Udalekuetako bisita ere izan den arren, aurten ez da horrelakorik antolatu.

2.5 Aldurarekin elkarlana

2.5.1 Helburu orokorrak

- Eskualdean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen aldeko mugimendua bultzatzea.
- Eskualdeko mailako egitasmoak gauzatzea, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen alde.

2.5.2 2022ko ibilbidea

2022an Aldura Elkarteak egitasmo berri bat du esku artean, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroarekin batera baratzak jarriko baititu martxan Beraunen. Errenteriako Udalak baratzak

lantzeko lurra utzi eta azpiegitura prestatu du eta Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroa proiektu terapeutikoa lantzen ari da (oraindik Osakidetzako Zuzendaritzak onartu behar du).

Bien bitartean Arraztalo baratzeen kudeaketarako laguntza teknikoa ematen ari da.

3 DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurten eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Dirulaguntza	Eskatua	Helburua	Onartua	Kobratua	Oharra
Oiartzungo Udala	53.000€	Lan integrazioa baratzetan	53.000€	53.000€	Hitzarmen bidezko dirulaguntza.
Kutxa Fundazioa	20.000€	Lan integrazio programan laguntzeko	20.000€	15.000€	% 75a kobratuta. % 25a 2023an
Foru Aldundia	1.531€	Nekazaritza ekologikoaren laguntzak, 2021eko deialdia	1.531€	1.531€	
Foru Aldundia	18.000€	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	8.492€	8.492€	
Lanbide/Errenteriako Udala	26.205€	Enplegu Plana 2021	26.205€	23.312€	Desgaitasuna duten 4 langileren kontratazioa
Oiartzungo Udala	2.000€	Lehen sektoreari laguntzak 2022	2.000€	2.000€	
Caixabanak	4.000€	Inbertsioetarako laguntzak 2022	3.000€	3.000€	
Foru Aldundia	2.561€	Nekazaritza	2.561€	2.561€	

		ekologikoaren laguntzak, 2022ko deialdia			
Lanbide/Errenteriako Udala	28.519€	Enplegu Plana 2022	28.519€	15.685€	Desgaitasuna duten 3 langileren kontratazioa

4 DIRU-KONTUAK

4.1 Balantzea

SARRERAK	
Kontsumo taldea	17.243,75 €
Merkataritza eta besteak	10.148,65 €
GUZTIRA SALMENTAK	27.392,40 €
Udala	55.000,00 €
Foru Aldundia	12.584,65 €
Banketxeak	21.350,00 €
Lanbide	38.997,28 €
GUZTIRA DIRULAGUNTZAK	127.931,93 €
Maileguak	4.500,00 €
GUZTIRA MAILEGUAK	4.500,00 €
Beste sarrerak	370,00 €
GUZTIRA BESTEAK	370,00 €
GUZTIRA SARRERAK	160.194,33 €

GASTUAK	
Soldatak	84.429,52 €
Gizarte segurantzak	37.050,89 €
Zergak (IRPF)	5.160,26 €
Joan etorriak	302,70 €
GUZTIRA LANGILERIA GASTUAK	126.943,37 €
Aseguruak	1.873,14 €
Zerbitzu profesionalak	3.720,54 €
Baratza materiala	2.791,59 €
Landareak	4.841,07 €
Erregaia	2.480,41 €
Argindarra	52,00 €
Ura	161,61 €
Hondakinak	204,60 €
GUZTIRA GASTU OROKORRAK	16.124,96 €
Finantza gastuak	40,09 €
GUZTIRA FINANTZA GASTUAK	40,09 €
Beste gastuak	965,25 €
GUZTIRA BESTE GASTUAK	965,25 €
Rotabatora	3.671,14 €
GUZTIRA INBERTSIOAK	3.671,14 €
Maileguen itzulketa	0,00 €
GUZTIRA MAILEGUEN ITZULKETA	0,00 €
Sentsibilizazio ekintzak	0,00 €

GUZTIRA SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK	0,00 €
GUZTIRA GASTUAK	147.744,81 €

HASIERAKO KAXA	12.513,35 €
ALDIKO KAXA	12.449,52 €
BUKAERAKO KAXA	24.962,87 €

Balantzeari dagokionean, honakoak kontuan hartu behar dira:

- 2023ari dagokion dirulaguntza bat kobratu da, 2022ko Lanbideren Enplegu Planari dagokiona hain zuzen ere, 15.685 €-koa. Diru hori 2023an kontratazioak egiteko da.
- Urte bukaeran, elkarteak hornitzaile eta hartzekodunekin 4764,40 €-ko zorra du.
- Urte bukaeran, bezero eta beste erakundeek 5434,16-ko zorra dute Arraztalorekin.

2023ko dirulaguntza hori kontuan hartu gabe eta zorrak kitatuta egongo balira, aldiko kaxa -2565,72 €-ko litzateke eta bukaerakoa 9947,63 €-koa.

Aipatu behar da, 2022an aplikatutako soldata igoerek langileria gastuan % 11ko igoera suposatu dutela. Gastu honi aurre egiteko, neurri ezberdinak hartu behar izan dira:

- Baratzako mantenu gastuak murriztu dira.
- Joan-etorriak eta erregaiaren gastuak murriztu dira.
- Dirulaguntzak handitzen edo gehiago eskatzen saiatu gara. Kutxa Fundazioarena, 2021ekoarekin alderatuz % 46 handitu da.
- Salmentak handitzen saiatu gara. Aurretik aipatu den moduan ez dugu lortu 2021eko kopurura iristea.

Neurri hauei esker, urteko balantzean esperotako galerak murriztea lortu da. Dena den, hurrengo urteari begira diru-sarrerak handitzea ezinbestekoa dela ikus daiteke. Ondorioz, Enplegu Zentro Bereziaren erregistroa egin eta Lanbideren dirulaguntzak lortu behar ditugu.